

DSS Turismoak turismo gidarientzako dekalogoia aurkeztu du eta udal araudi murriztaile batean ari da lanean



- **Donostia Turismoak turismo arduratsu eta jasangarriaren alde lan egiten du. Hori dela eta, erakundeko bazkideak diren gidariek batera, hainbat gomendio biltzen dituen dekalogo baten argitalpena prestatu du, bisita gidatuen kalitatea eta bisitari eta herritarren esperientzia ona bermatzeko asmoz.**
- **2024ko urtarriletik aurrera, udal araudi murriztaileagoa ezarriko da, eta gaur egungo gomendio nagusiak nahitaez bete beharrekoak izango dira.**

Donostian, 2023ko uztailearen 21ean,

Donostia Turismoak herritarren **bizi kalitatea** jarri du bere estrategiaren erdigunean. Horregatik, turismo jardueran **kutsadura akustikoa arautu** duen lehen euskal hiria izan da, eta orain beste urrats bat eman du, bisita gidatuetarako gomendioen **dekalogo**a argitaratuz; bien bitartean, lanean jarraitzen du, hurrengo urtean **araudi murriztaileago** bat onartze aldera.

Bisita gidatuak egiten dituzten taldeak nabarmen ugartu dira azken urteotan, eta bisita horien **kalitatea** bermatzeko eta herritarren eguneroko bizitzan eragin ditzaketen deserosotasunak **minimizatzeko**, DSS Turismoa tokiko gidariekin elkarlanean aritu da sektoreko profesionalei zuzendutako dekalogo batean.

Gomendioak, besteak beste, hauek dira: talde bakoitzeko gomendatutako gehieneko pertsona-kopurua mugatzea (goi denboraldian 20 pertsona eta behe denboraldian 25); banakako audio sistemak erabiltzea; igarobide publikoen okupazioa saihestea; udan eta puntako orduetan, gainezka dauden kaleak eta eremuak saihestea; hiriaren eta lurraldearen ondarea, kultura eta erakargarritasuna azpimarratzea; Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak –euskara eta gaztelania– gutxienez jakitea; turistak animatzea hiria modu jasangarri eta arduratsuan bisitatzera; etab.

Gainera, DSS Turismoa, **bertako gidariekin eta Hiri Mantentze eta Zerbitzuen** atalarekin elkarlanean, **udal araudi murriztaile** bat aurrera atera nahi du 2024. urterako. Araudiak, besteak beste, bi murrizketa hauek jasoko ditu: talde bakoitzeko gehieneko pertsona-kopurua mugatzea, eta, jarduera horretan aritzeko ordutegia mugatzea.

Bide publikoan garatzen diren turismo jardueretan **megafonia mugatzeko asmoz**, DSS Turismoak, Osasun eta Ingurumen Sailarekin batera eta Udaltzaingoaren Udal Ordenantzak Kontrolatzeko Unitatearekin batera, 2022. urtearen amaieratik abian jarri zuten kanpainari gehitu behar zaizkio bi murrizketa aipatuak. Donostia izan da kutsadura akustikoa mugatzeko ordenantza bat ezarri duen Euskadiko lehen hiria, eta, Espainiako lehenengoetako bat.



Donostia
San Sebastián

Donostian turismo arduratsu eta jasangarriaren aldeko apustua egiten dugu, eta sektoreko profesionala zaren aldetik, **zugana jotzen dugu laguntza eske**, bisitarien eta herritarren esperientzien kalitateari eusteko. Guztiontzako Donostia jasangarriago eta atsegino baten alde.

1



Talde eta gidari bakoitzeko gomendatutako*

pertsonen gehieneko kopurua: goi denboraldian 20 eta behe denboraldian 25. Kopuru handiagoa izanez gero, taldea banatzea eta laguntza gisa tokiko gidariak edukitzea eskatzen da.

*30.24ko urtariketik aurrera, udal araudi murriztaile bat ezarriko da.

2



Kalean zarata gehiegi egon ez da din, beharrezkoa da banakako audio sistemak erabiltzea. Udal ordenantza bidez debekaturik dago megafonoak eta mikrofonoak erabiltzea edota talde ugarietan ahotsa goratzea.

3



Bide publikoaren okupazioa. Saihestu igarobi-deak, bidetegiak, espaloi oso estuak, ostalaritzako edota saltokietako sarrerak, etab. Aprobetxatu parkeak, etorbideak eta horretarako egokiak diren lekuak, espazioak, etab.



4

Udan eta puntako orduetan saihestu gainezka dauden kaleak eta eremuak. Jende asko pilatzen den uneetan, bisita alternatiboak egitea gomendatzen da, hiriarren gaineko ikustaldi panoramikoak eginez pilaketa txikiagoko lekuetatik: parkeetatik, behatokitatik...

6



Ekonomia Zirkularra. Merkataritza txikian kontsumoa sustatzea, tokiko negozio ezberdin eta paregabeen garapena bultzatzea. Kontsumo arduratsu eta jasangarria sustatzea.

8



Gastronomia. Tokiko gastronomia jator eta kalitatezkoaren alde egiten duten sukalaritza-establezimenduak bisitatzea. Pintxo Institutuari eta DSS Turismoari atxikitako establezimenduak benetako eta tokiko zerbitzu onaren a dibi de ederrak dira.

10



Jasangarria eta arduratsua. Bisitatzen gaituztenei gogorazai hiria eta hiriko ondarea zaindu eta ingurumena errespetatu behar dutela (hondakinak birziklatu, garrai o publikoan ibili, tokiko merkataritza erosi, tokiko produktuak kontsumitu, etab.).



5

Tokiko erakargarritasuna. Helmuga turistikoaren ondarea eta kultura azpimarratzea; hiria, Gipuzkoa eta Euskal Herria. Herrialdeko historia eta kultura ondo ezagutzea.



7

Presarik gabe. Bisitatzen gaituztenei **astia ematea** beste leku batzuk euren kasa esploratu ditzaten, hala nola museoak eta turismo zerbitzuak.



9

Hizkuntzak. Gidariak Euskal Autonomia Erki degoko bi hizkuntza ofizialak jakitea gomendatzen da: euskara eta gaztelania, gutxienez.



Donostia
San Sebastián

sansebastian.turismoa.eus